



Euskaldunen hizkuntza-eskubideak-3:

Zein eskubide bermatzen zaizkie herritarrei segurtasunaren alorrean?

IRAKASGAIA: Euskararen Arauak eta Erabilerak Arlo Juridikoan

Itxaso VALERO IZAGIRRE

AURKIBIDEA: I. Sarrera. II. Araudiaren azterketa. 2.1. Orokorrean. 2.2. Segurtasunaren arloan. III. Normalizazio planak. IV. Analisia. 4.1. Aitortutako eskubideak. 4.2. Hutsune eta arazoak. V. Ondorioak eta proposamenak. VI. Bibliografia.

I. SARRERA.

Euskararen normalizazioa lortuko bada, beharrezkoa da euskararen erabilera bultzatzea eta, horretarako, lehenik herritarrei hizkuntza-eskubideak bermatzea. Hori bai, hizkuntza-eskubideak edukitzea ez da nahikoa, horien ezagutza bideratu behar da; alabaina, ez da batere erraza euskaldunok administrazioaren, poliziaren eta epaitegien aurrean aitortuta ditugun hizkuntza-eskubideak ezagutzea: lehenik, egoera oso ezberdina da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean; bestetik, ezberdintasun ugari dago lanaren arabera; eta, azkenik, nabariak dira legediaren eta errealitatearen arteko kontraesanak.

Lan honen helburua bikoitza da: alde batetik, euskaldunok segurtasunaren arloan ditugun hizkuntza-eskubideak era bateratu eta argian azalarazi nahi ditut, horien ezagutza errazteko. Lanaren arabera ezberdintasunak ugariak direnez, hasiera batean **arau orokorrak** aztertuko ditut, baina gerora **segurtasunaren arloko arauak** erreparatuko diet. Horrez gain, duten garrantzia dela eta, arlo honi eragiten dioten normalizazio planak aztertuko ditut eta bertan jasotako hainbat daturen berri emango dut; bestalde, behin araudia ezagututa, mahai gainean jarriko ditut horren alderdi positiboak eta negatiboak. Hau da, aztertuko ditut euskaldunoi **aitortu zaizkigun** eta onuragarriak diren **eskubideak**, baina baita oraindik dauden **hutsune eta arazoak**; amaitzeko, aztertutakoaren **ondorioak** aterako ditut eta euskaldunok segurtasunaren arloan dauzkagun hizkuntza-eskubideak hobetzeko **proposamenak** egingo ditut.

II. ARAUDIAREN AZTERKETA.

2.1. Orokorrean.

Euskaldunon hizkuntza-eskubideei buruzko araudia oso anitza da. Ondorioz, nik garrantzitsuenei bakarrik egingo diet aipamen:



1978ko Espainiako Konstituzioa:

EK-ko 3.1 artikulua Espainiako hizkuntza ofiziala gaztelera dela dio; aldiz, 3.2ak gainerako espainiar hizkuntzak ere dagokion Autonomia Erkidegoan ofizialak izango direla xedatzen du. Horrez gain, **3.3 artikulua** dio Espainiako **hizkuntza-aniztasuna kultura-ondarea** dela eta errespetuaren eta babesaren objektua dela.

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Europako Hizkuntzen Gutuna:

Gutunaren helburua Europako **hizkuntza gutxiak babestea** eta eskualde eta eremu urrietako tradizioak eta kultura mantentzen eta garatzen laguntzea da.

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna:

22. artikuluaren hitzetan, Europar Batasunak kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta **hizkuntza-aniztasuna** errespetatzen ditu. Eskualdeetako eta Eremu Urriko Europako Hizkuntzen Gutuna eta Gutun hau bereziki garrantzitsuak izan dira euskararen normalizaziorako. Izan ere, hauen ondorioz Espainiak euskara babesteko obligazioa dauka eta, ondorioz, berrespenaren ostean Espainian euskarekin loturiko eskubide ugari aitortu dira.

EAEko Autonomia Estatutua:


Arlo honetan bereziki esanguratsua da **6. artikulua**. Honakoa dio:

6. artikulua

- 1.- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiak dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
- 2.- Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, berorien ofizialtasuna erregulatuz, eta berorien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.
- 3.- Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.
- 4.- Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.
- 5.- Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroriekin izan ditzaketan harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultzatzen da.

13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko:

9.2 artikulua euskarari, gaztelaniarekin batera, izaera ofiziala aitortzen dio Nafarroako gune euskaldunetan.





[Euskal Foru Zuzenbideari buruzko 5/2015 Lege Organikoa:](#)

Lege hau duela gutxi argitaratu bada ere, aldaketa ugari dakartza zuzenbide zibilaren arloan. Gure azterketarako **7. artikulua** interesatzen zaigu:

7. artikulua.– Hizkuntza koofizialak eta Euskal Zuzenbide Zibila.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan formalizatu ahal izango dira lege honek araututako egintzak eta kontratuak.

2.– Egilesleek egilespen-tokiko hizkuntza ofizialetatik zein hitzartu eta hizkuntza horretan idatziko dira agiri publikoak; eta hizkuntza ofizialak bat baino gehiago izanez gero, alderdiek aukeraturutakoa erabiliko da. Alderdien artean desadostasuna gertatuz gero, agerkai publikoa bertako hizkuntza ofizial guztietan idatzi beharko da. Tokiko hizkuntza ofizialetatik eskatzaileak zein aukeratu eta hizkuntza horretan luzatuko dira kopiak.

[10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arautzekoa:](#)

Lege honek EAEko Autonomia Estatutuko 6. artikulua garatzen du. Bere helburua euskararen eta gaztelaniaren erabilera arautzea da EAEn. Ondorioz, bere osotasunean garrantzitsua da euskaldunon-hizkuntza eskubideentzat. Hala ere, bereziki 2, 3 eta 5 artikuluei erreparatzea komeni da:

- ❖ 2. artikulua: euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza.
- ❖ 3. artikulua: EAEko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.
- ❖ 5. artikulua:

**Herritarren eta herri-agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak
hizkuntzaren alorrean.**

5garren Atala.

1.- Euskal Herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubide.

2.- Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

- a) Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatutako edozein Ihardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- b) Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- c) Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- d) Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskaraz aritzeko eskubidea.
- e) Edozein bilkuratan euskaraz egiteko eskubidea.

3.- Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, herri-agintesailek beraien erabilpena bermatuko dute.





[6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena:](#)

37. eta 42. artikuluen artean kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak arautzen dira. Esaterako, 38.3 artikulua dio erakunde publikoekin dituzten harremanetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileek arreta eurak hautatzen duten hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea dutela.

2.2. Segurtasunaren arloan.

Hasteko, uste dut komenigarria dela bi puntu argitzea: alde batetik, euskaldunoi Iparraldean ez zaizkigu hizkuntza-eskubideak aitortzen segurtasunaren arloan, ez gutxienez era ofizialean. Hau dela eta, argi utzi nahi dut jarraian aztertuko dudana araudia Espainiakoa dela eta, ondorioz, EA Erako eta Nafarroarako bakarrik dela aplikagarria; bestetik, aztertuko ditudan arauak gain badaude segurtasunaren arloko beste zenbait arau. Hala ere, hainbeste direnez, uste dut egokiagoa dela garrantzitsuenei bakarrik egitea erreferentzia. Behin hau esanda, arlo honetako arau esanguratsuenen azterketari ekingo diot.

[Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 7/2007 legea:](#)

Hainbat hizkuntza-eskubide aitortzen ditu. Hori bai, kontuan izan behar da 2015ean, besteak beste, 2015eko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen 5/2015 Errege Dekretua eta Polizia Nazionalaren Eraentza Pertsonalaren 9/2015 Legea onartu direla. Izan ere, hauek aztergai dugun Legearen hainbat artikuluri eragiten diote eta, ondorioz, 2015eko azaroaren 1etik aurrera derogatuta daude. Hala ere, jarraian aztertuko ditudan artikuluek ez dute eraginik jasan eta, ondorioz, gogoan izan indarrean jarraitzen dutela.

- ❖ **54.11 artikulua:** bermatuko da hiritarren arreta eskatzen duten hizkuntzan egitea, betiere lurralde horretan ofiziala bada.
- ❖ **56.2:** Autonomia Erkidego batzuek bi hizkuntza ofizial dituzte. Administrazio Publikoek hautaketan kontuan izan behar dute Autonomia Erkidego horietako lanpostuak behar bezala betetzeko gaitasuna duten enplegu publikoek hautapena.
- ❖ **95.2b:** hutsegite oso larria da hizkuntzagatik diskriminatzea.

[Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea:](#)

97tik 99rako artikuluetan (**V. Titulua**), hizkuntza normalkuntza arautzen da. Adibidez, 97.1ak dio euskara eta gaztelania direla euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta kanpo zein barne harremanetan bermatu egingo dela bien erabilera.

[Uztailaren 17ko 4/1992 Legea, Poliziari buruzkoa:](#)





39. artikulua dio Euskal Administrazio publikoak bere menpeko poliziek behar bezalako hizkuntza-gaitasuna lortzen saiatuko dela.

[Otsailaren 24ko 30/1998 Dekretua](#), [Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duena](#):

3. artikulua dio **Ertzaintzako lanpostuei 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak** ezarriko zaizkiela. Kontuan izan behar da [maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuak](#) aldaketak eragin zituela otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuan.

III. NORMALIZAZIO PLANAK.

Normalizazio planak ezinbestekoak izan dira euskaldunon hizkuntza-eskubideek garatzeko azken urteetan. Normalizazio planak berez arauak dira eta, beraz, printzipioz aurreko puntuaren barruan kokatu beharko nituzke; aitzitik, hauen garrantzia dela eta, egokiagoa iruditu zait puntu oso bat esleitzea. Segurtasunaren arloko langileei bi normalizazio plan zaizkie aplikagarri: Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia eta Segurtasunaren sailean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

Alde batetik, EAEko herri administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko asmoarekin, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, V. Plangintzaldirako (2013-2017) [Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia](#) onartu zuen. Segurtasunaren arloko langile batzuk administrazioaren menpe daudenez, langile hauei aplikagarri izango zaie.


Bestetik, Eusko Jaurlaritza jabetu zen euskararen egoera segurtasunaren arloan ez zela batera ona. Esate baterako, 2014ko urrian 8.000 ertzain inguru zeuden. Horien %62,4k ez zekien euskaraz eta %2ak, hau da, 171 ertzainek bakarrik zuten euskarazko bigarren perfila (ingelesezko C1 mailaren baliokidea). Hori ikusita, Eusko Jaurlaritzak [Segurtasunaren sailean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana](#) onartu zuen 2014-2017 urteetarako. Plan hau funtzionarioei, lan-kontratudun langileei eta ertzainei aplikatzen zaie eta honakoak dira bere helburuak:

“Euskal gizartea elebidun izan nahi duen gizarte gisa definitzen da, eta Ertzaintzak euskal herritarrei polizia-zerbitzua gatzeleraz edota euskaraz eskaini nahi die. Ertzaintza euskal gizartearen zerbitzuan dago eta horregatik, euskal herritarrengana beraiek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean zuzentzeko gai izan behar du”.

Planean zehar azken urteetako datuen berri ematen da eta, horrez gain, planaren bidez lortu nahi diren helburuak adierazten dira. Planean adierazitako datu guztiak esanguratsuak dira segurtasunaren arloan hizkuntza-eskubideek izan duten garapenaz jabetzeko. Halaber, datu kopuru handia dela eta, garrantzitsuenak bakarrik nabarmenduko ditut:




DERRIGORTASUN DATEN GARAPENA




• **Hizkuntza eskakizunak egiaztatzea.** Azken hamabost urte hauetan, 2.661 ertzainek Ertzaintzaren HE1 gainditu dute Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak egindako deialdietan eta gainerakoek balioziketzen bitartez. Bestalde, Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizuna 2012tik aurrera indarrean dago; horregatik zenbatzen dira aparte hizkuntza eskakizun bakoitzekoak urte horretatik aurrera.

DERRIGORTASUN DATEN GARAPENA



• **Hizkuntza eskakizunak egiaztatzea.** Azken hamabost urte hauetan, 2.661 ertzainek Ertzaintzaren HE1 gainditu dute Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak egindako deialdietan eta gainerakoek balioziketzen bitartez. Bestalde, Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizuna 2012tik aurrera indarrean dago; horregatik zenbatzen dira aparte hizkuntza eskakizun bakoitzekoak urte horretatik aurrera.



1.3.4 Euskara gaitasuna adinaren arabera

Adin tartea	HE2	HE2(%)	HE1	HE1(%)	B1	B1(%)	< B1	< B1(%)	GUZTIRA
25era arte	0	0,00	17	73,91	1	4,35	5	21,74	23
26tik 30era	6	2,24	163	60,82	19	7,09	80	29,85	268
31tik 35era	14	2,20	288	45,28	62	9,75	272	42,77	636
36tik 40era	13	1,77	352	47,89	74	10,07	296	40,27	735
41etik 45era	48	3,31	678	46,76	79	5,45	645	44,48	1450
46tik 50era	43	2,00	723	33,71	45	2,10	1334	62,19	2145
50etik gora	32	1,22	629	23,98	21	0,80	1941	74,00	2623
GUZTIRA	156	1,98	2850	36,17	301	3,82	4573	58,03	7880

Nabaria da azken urteetan euskaraz dakiten ertzainen kopuruak izandako bilakaera. Egia da 2. hizkuntza-eskakizuna dakiten ertzainen kopurua motel hazi dela, baina, bestalde, 1. hizkuntza-eskakizuna dutenena ikaragarri hazi da. Honenbestez, agian ertzainen euskarmaila ez da oso ona, baina gero eta gehiago dira gutxienez oinarrizko kontzeptuak menderatzen dituztenak. Honetan zeresana izan du, alde batetik, euskaraz jakin behar duten ertzainen lanpostu kopurua haztea erabaki izanak eta, bestetik, euskarari buruzko oinarrizko ezagutzak dituzten ertzain gazteen merkaturatzeak. Gainera, Eusko Jaurlaritza ez da konformatzen eta planaren bidez hurrengo urteetan datu hauek are gehiago hobetu nahi ditu.





IV. ANALISIA.

4.1. Aitortutako eskubideak.

Ahozko komunikazioa:

Herritarrok Administrazioarekin ¹ edota Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoko eremu euskaldunean kokatutako edozein erakunde eta entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea dugu ². Ondorioz, herritarrok **ertzainei, udaltzainei edo bestelako poliziei euskaraz egiteko, eta beraiengatik erantzuna euskaraz jasotzeko** eskubidea dugu.

Komunikazio idatzia:

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako eremu euskaldunean kokatutako **herri-aginteeek esku hartzen duten egintza guztiak, eta administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita** egon behar dute, **salbu** eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko **hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute** ³. Hau da, adibidez nik Ertzainari jakinarazpena gaztelaniaz egiteko eskatzen badiot, gaztelaniaz egingo dit, baina gainerakoan bi hizkuntzan bidaltzeko obligazioa dauka.

Atxilotuaren eskubideak:

Poliziako kideek atxilotzen dituzten pertsonen eta bere zainpean dituztenen bizia eta gorputz-osotasuna zaindu behar dituzte, eta beraien ohore eta duintasuna eta legez dagozkien **eskubideak errespetatu** ⁴. **Horien artean**, besteak beste, **hizkuntza-eskubideak**. Hizkuntzak ezingo du inoiz atxilotuaren defentsa-gabezia eragin.

Hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea:

Euskal Autonomia Erkidegoan, Poliziaren Legeak **hutsegite astuntzat** hartzen dut herritarrei kalteak eragitea, herritarrekiko begirunerik eza, Administrazioaren eta Polizia Zerbitzuaren itxura lardaskatzea eta, orohar, herritarren **segurtasuna baldintzatzea** ⁵. Bestalde, Nafarroako Foru Erkidegoak Poliziari buruzko Foru legean jasotzen du **hizkuntzagatik diskriminatuzeko debekua** ⁶.

¹ 4/1992 Legeko Azken Xedapenetako Lehena.

² 10/1982 Legearen 5.2 artikulua.

³ 10/1982 Legearen 8.2 artikulua.

⁴ 4/1992 Legearen 36.1 artikulua.

⁵ 4/1992 Legearen 94. artikulua.

⁶ 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren 55 artikulua.



Euskaldunon hizkuntza-eskubideei buruzko araudia anitza den heinean, arau hauetatik eratorritako eskubideak ere ugariak dira. Horregatik, nik eskubide esanguratsuenak bakarrik aztertu ditut. Informazioa gehiago nahi izanez gero, web-orri hau gomendatzen dut: <http://tinyurl.com/hizkuntza-eskubideak-polizia-2>

4.2. Hutsune eta arazoak:

Sarreran aurreratu dudan bezala, euskaldunok gure hizkuntza-eskubideak egikaritzeko arazoa ez da araudi falta, baizik eta araudiaren eta errealitatearen arteko kontraesana. Kontraesan hauek agerian uzteko praktikoena adibide bidezko azterketa dela deritzot:

1. berria:

may
05

La Guardia Civil se vuelve a liar con el euskera

Tag: Política — Ignacio Escolar @ 19:44

« El escándalo de las mutuas patronales | Bildu estará en las elecciones... »

La Guardia Civil ha presentado justo esta mañana un informe ante el Tribunal Constitucional en el que aseguran que el primer lehendakari del País Vasco y fundador de Eusko Alkartasuna, Carlos Garaikoetxea, se reunió con ETA. Se basan en [una supuesta acta de ETA](#) que incautó la Guardia Civil en febrero de 2010 y que hasta hoy, casualmente, no han tenido tiempo de traducir. Pues bien: al parecer tanta prisa en la traducción (algo más de un año, casi nada) no ha sido suficiente para evitar algunos errores de bulto, según me explica un amigo que habla euskera.

Para la Guardia Civil, el párrafo que señala a Garaikoetxea es éste:

“ Orduztik harreman zuzen bakarra egon da, 2005eko hasieran. Orduan bilkura bat burutu zen. Garaiko presidentea eta oraingo bigarren ordezkaria egon ziren. Bilkura eta ez zitzaion harremanari jarraipenik eman, Hostoak Erakundeari eginiko kritika publiko batzuei gutunez erantzun ondoren.

Y la Guardia Civil lo ha traducido así:

“ Desde entonces ha habido un solo contacto directo, a principios del 2005. Entonces se celebró una reunión. Estuvieron el presidente Garaiko y el segundo representante actual. Tras la reunión no se dio continuación a esa relación, después de que Hosto respondiera por carta a algunas críticas públicas hechas a la Organización

¿El error? Que “Garaiko presidentea” no es el apodo del exlehendakari Garaikoetxea sino que, en euskera, significa “el presidente de entonces”. “Garaiko” viene de garai (“tiempo”) -ko (partícula “de”) presidentea (“el presidente”). “La Hoja” (Hostoa) es como supuestamente llama en clave ETA a EA. Se refiere a su logo, que es una hoja de roble. Obviamente, “la Organización” es como ETA se llama a sí misma.

Lehen [berri hau](#) 2011 urtekoa da. Noski, akats bat edonork izan dezake, baina tartean dagoena hain gai serioa denean, onartezina da. Urtebete eta gero oinarrizko kontzeptuak gaizki itzultzeak ageri uzten du Guardia Zibileko kideek ez daukatela oinarrizko euskara mailarik. Honenbestez, oso zaila iruditzen zait gero herritarren ahoz edo idatziz euskaraz komunikatzeko gai izatea eta, beraz, printzipioz herritarrok ditugun eskubideak bermatzea.



2. berria:

ATAKAK

berria

Euskaraz hitz egiteagatik Guardia Zibilak atxilotutako gazte bat epaitu dute Iruñean

Erresistentzia larria egozten zioten hasieran, baina fiskalak dio epaitutako gertaera hutsegitea baino ez dela



[Berri hau](#) 2013. urtekoa da. Aurrez aipatu dut 10/1982 Legeak poliziari euskaraz egiteko eta erantzuna euskaraz jasotzeko eskubidea jasotzen duela; aldiz, gure gizartean ohikoak dira hau bezalako berriak. Nire ustez honek argi uzten du poliziek ere ez dutela obligazio honen berri. Ez dutenez ezagutzen, ez dute bermatzen eta, ondorioz, herritar ugari uste du euskaraz zuzentzeko eskubiderik ez dutela; bestalde, beste zenbait hiritarrek badaki eskubidea duela, baina atxilotua izateko beldurreratik ez du erabiltzen.

3. berria:

El Gobierno vasco impulsa un plan para paliar el "bajo nivel" de euskera en la Ertzaintza

El 62% de los agentes no domina el idioma y el Ejecutivo pretende que sea "requisito" en el futuro para acceder a la Policía autonómica

DAVID S. OLABARRI | @diolabari | 27 septiembre 2014 01:29

76

f 71

T

S

R



Candidatos a la OPE de la Ertzaintza del pasado mes de julio se presentan a una de las pruebas. / E. C.

PUBLICIDAD

El Departamento de Seguridad del Gobierno vasco ha elaborado el primer plan de uso del euskera en la historia de la Ertzaintza, que está siendo debatido en la actualidad por los sindicatos con el propósito de presentar las alegaciones que consideren oportunas a un documento que no está todavía cerrado. La consejería que dirige Estefanía Beltrán de Heredia persigue que la Policía autonómica sea capaz de ofrecer un "servicio bilingüe" a la sociedad vasca y de comunicarse con los ciudadanos "en el idioma oficial de su elección". Para cumplir ese ambicioso objetivo, el Departamento de Seguridad plantea una serie de medidas de cara a los próximos años que, en todo caso, chocan con una realidad: en la actualidad, el 62,4% de la plantilla de la Ertzaintza - compuesta por unos 8.000 agentes- no domina el euskera y apenas 171 funcionarios (un 2% del total) han acreditado el perfil lingüístico 2, equivalente a un dominio avanzado del inglés.



Segurtasunaren sailean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana aztertzean, euskaraz dakiten ertzainen kopurua azken urteetan ikaragarri hazi dela ikusi dugu. Hala ere, [berri honek](#) adierazten digu 2014ko urrian oraindik ertzainen %62,4ak ez zekiela euskaraz eta %2ak bakarrik zuela euskararen bigarren perfila. Berri honetatik bi ondorio atera ditut: alde batetik, berriz ere praktikan zaila izango dela legez onartutako eskubide guztiak bermatzea; eta, bestetik, egunkari gehienek (berri berdina beste zenbait egunkaritan irakurri dut) euskaraz ez dakiten ertzainen kopurua nabarmentzen dutela, baina ez, aldiz, azken urteetan euskaraz bai dakitenen kopurua izugarri hazi dela. Berriak era honetan adieraziz gero, herritarrak ez dira egondako garapenez jabetzen eta poliziek orokorrean euskaraz ez dakitela pentsatzen jarraitzen dute, nahiz eta hau ez izan horrela.

4. berria:



[Azken berria](#) 2014ko urrikoa da. Bideoan ikusgai duzue, bertan Gorka Maneirok Ertzaintzaren Euskara Plana kritikatzeko du. Izan ere, bere ustez ertzainek euskaraz jakitea ez da garrantzitsua. Honek erakusten digu gizartean zati batentzat oraindik hizkuntza-eskubideak ez direla garrantzitsuak. Noski, esarak dioen bezala, “eder edo itsusi, zein begik ikusi”, hau da, munduan iritziak adinak dira; aldiz, niri iruditzen zait deklarazio hauek egiten dituen politikari batek ez dituela legez aitortutako hizkuntza-eskubide guztiak ezagutzen. Izan ere, legeak ertzainei euskaraz jakiteko obligazioa ezartzen diela ezagutzen duen orok, plana legea betetzeko bidea dela onartu beharko luke, nahiz eta bere ideiekin bat ez etorri.





Laburbilduz, praktikan maiz ez dira bermatzen legez aitortutako eskubideak. Hizkuntza-eskubideak babesteko arauak argitaratzea garrantzitsua da, baina ez du ia ezertarako balio praktikan eskubide horien egikaritzea bermatzen ez bada. Hau dela eta, bigarren berrian aipamen egin diodan bezala, maiz hiritarrek ez dakite zein eskubide duten eta, maiz badakite baina euskaraz jarduteak izango dituen ondorioen beldur dira.

V. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK.

Honenbestez, euskaldunon eskubideen aldeko araudia oso anitza da eta euskararen normalizazioan aurrerapauso handiak eman dira; hala ere, aurrez adierazitako arazoez argi uzten dute praktikan maiz ez direla bermatzen hizkuntza-eskubideak. Hau dela eta, oraindik egiteko ugari dago euskararen erabateko normalizazioa lortuko bada. Nire ustez, normalizazio hori lortzeko beharrezkoa da gutxienez bi neurri hauek hartzea:

Alde batetik, **araudia bateratzea**. Izan ere, birritan aipatu dudana bezala, oso ondo dago hizkuntza-eskubideak aitortzen dituzten arau ugari egotea, baina honek aldi berean eskubideak ezagutzea zailtzen du. Esaterako, niretzat lan honen zailtasun handiena dauden eskubide guztiak identifikatzea izan da. Argi dut adibidez ertzain batek ez duela arratsalde oso bat hartuko arau batetik bestera ibili eta hiritarrei bermatu behar dizkien eskubide guztiak behar bezala ezagutzeko.

Bestetik, teorian onartzen dena errealitatean eramateko eta segurtasunaren arloan euskararen **erabilera erabat normalizatu eta bermatzeko baliabideak** jarri behar direla deritzot. Ardura hau botere legegile eta exekutiboek gain, judizialak ere eduki behar du. Izan ere, aztertutako bigarren berrian epaileak poliziari euskaraz hitz egin zion hiritarrari ez zion delitua egotzi, baina bai hutsegitea. Beharrezkoa da **botere judizialak ere** hizkuntza-eskubideak bere osotasunean ezagutzea eta horien egikaritzea ez zigortzea. Izan ere, euskaraz jarduteak isunak badakartza, logikoa da hiritarrek poliziarekiko harremanetan gatzelania lehenesten jarraitzea.

Hizkuntza-eskubideek azken urteetan izandako garapenari bi neurri hauek gehitzen badizkiogu, segurtasunaren arloan euskararen normalizazioa lortzea errazagoa izango da. Horrela, *gaur ametsa dena bihar errealitatea izan daiteke.*



VI. Bibliografia

- ❖ http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14414/eu/contenidos/informacion/euskera_en_administracion/eu_6151/eu_euskara_administrazioan_26.html
- ❖ http://www.osanet.euskadi.eus/contenidos/informacion/flash_proba/eu_11035/html/02_6.htm
- ❖ http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/2013-2017%20Plana.pdf
- ❖ https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/5309/Euskararen_Erabileria_Plana.pdf?1413987398